

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### NEKAZARITZA SAILA

**Diputatuen Kontseiluaren 45/2016 Foru Dekretua, ekainaren 7koa, zeinaren bidez onartzen baitira Basogintzarako Laguntza Plana arautzen duten oinarriak eta 2016rako deialdia, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapenerako Programaren baitan**

Landa garapena Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) bigarren zutabea da. Europako Parlamentuak eta 2013ko abenduaren 17ko Kontseiluak 1305/2013 Arautegia onartu zuten, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsekin bidez (LGENF) landa garapenari laguntzeko eta Kontseiluaren 1698/2005 (EE) Arautegia indargabetzen duena. Arautegi horren aplikazio xedepanak Batzordearen 2014ko uztailearen 17ko 808/2014 Betearazpen Arautegiaren bidez ezarri dira.

Landa garapenaren aldeko azken arautegi horrek azpimarratzen du, landa gunetako garapen iraunkorra bermatze aldera, behar-beharrezkoa dela oinarrizko lehentasunen kopuru mugatu bati men egitea. Besteak beste: baso kudeaketa iraunkorra; nekazaritzarekin eta basogintzarekin zerikusia duten ekosistemen birgaikuntza, babesia eta hobekuntza; baliabideen efizientzia eta ekonomia hipokarboniko baterantzko trantsizioa nekazaritza, elikagai eta basogintza sektoreetan; eta landa gunetan gizarteratzea sustatzea, pobrezia murriztea eta garapen ekonomikoa bultzatzea. Horretan guztian zeharkako bestelako helburuak hartu behar dira aintzat, hala nola berrikuntza, ingurumena, klima aldaketaren apaltzea eta hari egokitzeko zeregina.

Arautegiak jarraitzen du aipatzen basogintza landa gunearen zati garrantzitsua dela, eta, klimari begira, lur iraunkorren erabilera jasangarriaren eta ez-kaltegarriaren aldeko laguntzak bere barnean jaso behar dituela baso guneen garapena eta basogintzaren kudeaketa iraunkorra.

Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak landa garapenaren aldeko planifikazioa jasotzen du epealdi horri begira eta Batzordearen 2015-5-6ko Betearazpen Erabaki bidez (3479 Erabakia) onartua izan da. Programa horrek, besteak beste, honako neurri hauek jasotzen ditu: baso garapenaren, basoetako bideragarritasunaren hobekuntzaren edo haien kontserbazioaren aldeko neurriak, hain zuzen.

Azaroaren 27ko 27/1983 Legeak, autonomia erkidegoko erakunde erkideen eta haren lurralde historikoetako foru organoen arteko erlazioarenak (LHL), 7. a) 9 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, Arabako Foru Aldundiak eskumen eskusiboa dauka mendi gaietan, aprobetxamenduetan, baso zerbitzuetan, abelbideetan eta larreetan (Autonomia Estatutuaren 10.8. artikulua ezarritakoaren arabera), bai eta baso zaintzan eta nekazaritza eta baso lurzoruen kontserbazioan eta hobekuntzan ere.

Mendiei buruzko eskumen eskusibo horretan oinarrituta, beharrezkotzat eta bidezkotzat jotzen da Foru Aldundiaren funtsekin bidez laguntza ematea Arabako Lurralde Historikoko titular publikoek mendiak kontserbatzeko aurrera eramaten dituzten jarduketari.

Arabako Lurralde Historikoen ezaugarrietariko bat da mendi publiko asko dituela (lurralde osokoen ehuneko 48) eta horiek kontzeju eta udalen jabetzakoak direla. Gehienetan mendi horietan baso autoktonoak azaltzen dira eta, hala, Araban Natura 2000 Sarearen azaleraren ehuneko 80 osatzen dute ia-ia. Arabako Basogintzarako Laguntza Planaren lehentasun gisa azaltzen da baso horiek babesteko eta hobetzeko zeregina, bai eta Natura Sareko eremuen kudeaketa planek gestioari ezartzen dizkieten mugen konpentsazioa ere.

Arabako basogintza sektore pribatua gehienbat ustiategi txikietan biltzen da eta horiek intsinis pinua eta ziklo laburreko bestelako ekoizpen espezieak ekoizten jarduten dute. Mendi publikoarena baino lurralde hedapen txikiagoa izanagatik ere, azpimarratzekoak dira haren garrantzi sozioekonomikoa eta masa horiek gizarteari dakarzkieten zuzeneko onurak. Horien artean kokatzen da Europak gaur egun landa garapenaren alde abiarazitako politikaren helburuen barruan funtsezkoa den bat, alegia, klima aldaketa apaltzeko zeregina.

Basogintzarako Laguntza Plan honek oso neurri garrantzitsuak sustatzen ditu basotzeari, baso azalerak sortzeari eta basoko suteek eta bestelako natura hondamenek eragindako kalteak prebenitzeari eta birgaitzeari begira, bai jabetza publikoko mendietan bai partikularrenetan.

Beste alde batetik, Araban emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasuna sustatzeko Foru Planaren xede nagusiari men eginez, hau da, epe laburrean eta ertainean emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunaren aldeko gobernantza hobetzeko zereginari erreparatuz eta emakumezkoek basogintza sektorean duten presentzia urria kontuan hartuz, laguntzak emateko lehentasun irizpideak sartu dira generoaren arabera, betiere emakumezkoen presentzia erabaki eta eragin arloetan sustatzeko eta emakumezkoen kontratazioa bultzatzeko.

Batasunaren arautegietan laguntza horiek eskuratzeko exijitutako betekizun berriak kontuan hartuz, beharrezkoa da betekizun horiei lotutako oinarri arautzaile berriak prestatzea eta aurrekoak indargabetzea, bai eta 2016rako laguntza hauen deialdia onartzea ere.

Bestalde, aintzat hartu beharra dago foru dekretu honetan jasotako laguntza lerro edo neurri batzuek aurrekontu partida berberak dituztela; gauzak horrela, horietako kredituak behar beste-koak ez badira beharkizunak betetzen dituzten eskaera guztiei laguntza emateko, aringarritzat jo da izapideetan lehentasun taldeak ezartzea. Hori horrelaxe egin da kreditu erreserba independenteen ezarpena saihesteko, horrek izapideak luzatzea ekarriko bailuke eta, ondorioz, diruz lagundutako jarduketak atzeratzea ere bai.

Diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretuak ezarri zuen zeintzuk diren Foru Aldundia egituratzeko sailak eta zeintzuk diren sail bakoitzari dagozkion gaiak legealdi honetan; horrela, Nekazaritza Sailari ezarri zizkion, besteak beste, mendiei, aprobetxamenduei eta baso zerbitzuei dagozkienak.

Aginduzko txostenak ikusirik, Nekazaritza Saileko foru diputatuak hala proposaturik eta Diputatuen Kontseiluak gaur egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

#### XEDATZEN DUT

Lehen. Basogintzarako Laguntza Planaren oinarri arautzaileak onartzea; planaren barruan jasotzen dira Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak "basogintzako sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" M4.3 azpineurrian eta "inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko" M08 neurrian ezarritako laguntza lerroak, betiere 1305/2013 Arautegiak eta haren babespean Eusko Jaurilaritzak onetsi beharreko dekretu markoak ezarritako mugen barruan, hala nola programa horretan sartzen ez den eta "basoen kontserbazioa" deritzon neurria, betiere foru dekretu honen eranskinaren artikuluei jarraikiz.

Bigarrena. Basogintzarako 2016ko laguntzen deialdia onartzea, jarraian zehaztutakoaren arabera:

Laguntza lerroak edo neurriak:

M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea.

M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea.

M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea.

M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak.

M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea.

M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

Basoen kontserbazioa.

Eskaerak aurkezteko epea: hogeita hamar egun natural, ALHAOn argitaratu eta hurrengotik kontaktzen hasita.

Kreditu erreserbak: Arabako Foru Aldundiaren 2016ko gastu aurrekontuaren barruan jarraian aipatzen diren partiden kontura:

40.1.06.45.00.7.6.2.00.02.2 "Mendi publikoetako laguntzak"

498.353,86 euro (198.353,86 euro 2016an eta 300.000,00 euro 2017an) mendi publikoetan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea eta M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak.

50.000,00 euro 2017an, "Basoen kontserbazioa" izeneko neurri nazionalari dagozkion laguntzak ezartzeko.

– 40.1.06.45.00.7.6.2.00.01.1 "Mugaketak eta mugarritzeak": 166.523,25 euro (16.523,25 euro 2016an eta 150.000,00 euro 2017an), "Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak" M08.5. neurriko laguntzak ezartzeko, betiere.

– 40.1.06.45.00.7.8.0.00.01.1 "mendi partikularretako dirulaguntzak":

Aurrekontu partidaren kontura: 366.468,80 euro (166.468,80 euro 2016an eta 200.000,00 euro 2017an) titulartasun partikularreko mendietan aurrera eraman beharreko honako neurri hauen laguntzak ezartzeko: M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea, M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea, M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea, M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea.

Aipatutako kredituak zenbateko gehigarrien bidez handitu ahal izango dira, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartutako Dirulaguntzen Lege Orokorraren Arautegiak 58. artikuluan ezartzen dituen mugen barruan, bai eta aurrekontuko partidaren edozein arrazoirengatik gerta litekeen kreditu gehikuntzaren bidez ere.

Hirugarrena. Deialdia ebatzi ondoren, aurrekontu sailean kreditu gehikuntzarik izan bada, emandako dirulaguntzei uko egin, deuseztatu edo zenbateko txikiagoak ordaindu direlako eta aurrekontuko kreditua nahikoa izan ez delako, eta zenbait eskabideri erantzun ez bazaie, kreditua eskabide horietan erabiliko da, honako dirulaguntza hauen oinarri arautzaileetan ezarritako lehentasun irizpideei jarraikiz.

Laugarrena. Nekazaritza Saileko foru diputatuari ahalmena ematea honako foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak emateko eta, zehazki, honako oinarri arautzaile hauen kontra nahiz urteko deialdien ebazpenaren kontra jartzen diren errekurtsio guztiak ebazteko.

Bosgarrena. Foru dekretu honen aurka doazen maila bereko edo beheagoko xedapen guztiak indargabetzea, bereziki, honako hauek:

Diputatuen Kontseiluaren 112/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23koa.

Diputatuen Kontseiluaren 38/2009 Foru Dekretua, apirilaren 27koa.

Diputatuen Kontseiluaren 3/2010 Foru Dekretua, otsailaren 2koa.

559/2010 Foru Dekretua, irailaren 7koa.

19/2012 Foru Dekretua, martxoaren 13koa.

Seigarrena. Foru dekretu honen bosgarren idatz zatian indargabetutako arautegiaren babespean onartutako azken deialdietan emandako laguntzen onuradunek ezin izango dute laguntza eskaerarik aurkeztu deialdi honetan ez eta deituko den hurrengoan ere, baldin eta emandako epeetan diruz lagundutako lanak edo proiektuak egin ez badituzte edo haien burutzapena inbertsio onartuaren zenbatekoaren ehuneko 50etik beherakoa izan bada behar bezala justifikatu gabe.

Zazpigarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean.

Gasteiz, 2016ko ekainaren 7a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Nekazaritza Saileko foru diputatua*

**EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO**

*Nekazaritza zuzendaria*

**ALFREDO SÁEZ DE CASTILLO BELTRÁN DE OTÁLORA**

**ERANSKINA****I. TITULUA****XEDAPEN OROKORRAK****1. artikulua. Xedea**

1.1. Foru dekretu honen xedea da honako oinarri arautzaile hauek ezartzea: Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak "basogintzako sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" M4.3 azpineurrian eta "inbertsioak basoguneak garatzeko eta basoen bideragarritasuna hobetzeko" M08 neurrian jasotako laguntzak emateko oinarri arautzaileak, hain zuzen ere. Horretarako, honako lehentasun hauek ezartzen dira: Biodibertsitatea eta paisaia zaharberritzea eta babestea.

Baso kudeaketa iraunkorra sustatzea eta basogintzaren lehiakortasuna bultzatzea.

Baliabideen efizientzia sustatzea eta karbonoan txikia izango den ekonomia bateranzko urratsa egiteko bultzada ematea klima aldaketari aurre egiteko, karbonoa finkatuz eta harrrapatuz.

Lurzoruen higaduraren prebentzioa sustatzea.

Basoen erresilientzia handitzea natura hondamendien aurrean.

Landa ingurunean enplegua sortzea eta basoen gizarte eta aisialdi zeregina sustatzea.

1.2 Era berean, "basoen kontserbazioa" izeneko laguntza nazionalen lerroa jasotzen da eta hari aplikagarri izango zaio titulu honetan ezarritakoa.

1.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntza lerro guztiak Arabako Basogintzarako Laguntza Plana osatzen dute.

**2. artikulua. Laguntza lerroak edo diruz lagun daitezkeen neurriak**

Foru dekretu honetan arautzen diren laguntza lerroak edo neurriak honako hauek dira:

2.1 Euskadiko Landa Garapenerako 2015-2020 Programak jasotako neurrietarako laguntzak, LGENFk zehaztutako baterako finantzazio kopuruaren arabera identifikazioa dutenak. Hona hemen:

M08.1. Basotzea eta baso azalerak sortzea, (ehuneko 75eko baterako finantzazioa).

M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea (ehuneko 53ko baterako finantzazioa).

M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea (ehuneko 53ko baterako finantzazioa).

M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak (ehuneko 53ko baterako finantzazioa).

M08.6. Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea (ehuneko 53ko baterako finantzazioa).

M04.3. Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak. (ehuneko 53ko baterako finantzazioa).

2.2 Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura oso-osorik finantzatutako laguntzak.

Basoen kontserbazioa.

### 3. artikulua. Onuradunak

3.1 Foru Dekretu honetan ezarritako laguntzen onuradunak honako hauek izango dira: 4. artikuluan zehaztutako betekizun orokorrez gain, kasuan kasuko laguntza lerroetan zehaztutakoak ere betetzen dituzten pertsona fisikoak, pertsona juridikoak (edo elkarteak), pertsona fisiko nahiz juridikoen elkarteak edota erakunde publikoak.

3.2 Foru dekretu hau aplikatzearen ondorioetarako, pertsona juridikoek legez eraturik egon beharko dute; halaber, sozietate zibil, titulartasun partekatuko erakunde eta ondasun edo jaraunspen erkidego baten esku dauden nekazaritza ustiategiak nortasun juridikoa duten ustiategizat hartuko dira.

3.3 Foru dekretu honen ondorioetarako, onuraduna gaztetzat hartu ahal izateko, eskaeraren datan 41 urtetik beherako adina izan beharko du. Bazkideei dagokienez, gaztearen izaera eskuratu da, baldin eta gutxienez kideen ehuneko 80k adinaren beharkizun hori betetzen badute.

3.4 Era berean, eskatzailea pertsona juridikoa edo bazkidea bada, emakumezkoaren izaera eskuratuko da baldin eta kideen ehuneko 80 emakumezkoak badira.

### 4. artikulua. Onuradunen betekizun orokorrak

Laguntza hauen onuradunek honako betekizun orokor hauek bete beharko dituzte:

4.1 Lurren erabilera edo gozamen eskubideen jabeak edo titularrak izatea. Gerta daiteke pertsona fisiko edo juridikoa lur guztien edo horien zati baten jabea ez izatea; halakoetan, eskaerarekin batera, jabe bakoitzaren berariazko baimena aurkeztu beharko du, diruz lagun daitezkeen lanak egitearekin bat datozela adieraziz. Kasu horretan, erabilera eskubideak beselako eskatzaileen alde eskuordetzen dituztenek ezin izango dute deialdi berean laguntzarik eskatu modu indibidualean.

4.2 Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzeko galerarekin zigorturik ez egotea ez zigor bidean ez administrazio bidean, ez eta horretarako gaitasungabetzen duen legezko debekuren bat ez izatea ere, horren barruan sarturik sexu diskriminazioagatik gertatutako debekuak, betiere otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, emakumezkoen eta gizonezkoen berdintasunarenak, azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

4.3. Ez egotea itzulketa edo zigor prozeduraren baten pean.

4.4 Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea. Sozietate zibil edo ondasun erkidegoei dagokienez, hori egiaztatu beharko da sozietateari nahiz bazkideei edo erkidegoko kideei buruz.

4.5 Hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak ordainduta izatea, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritakoari jarraituz.

### 5. artikulua. Inbertsioak onartzeko betekizun orokorrak

Diruz lagunduak izan daitezten, inbertsioek honako betekizun orokor hauek beteko dituzte, bai eta neurri bakoitzean ezarritako betekizun zehatzak ere:

5.1 Inbertsioaren xede diren basoak eta baso azalerak Arabako Lurralde Historikoan kokaturik egongo dira.

5.2 Azalerari loturik dauden eta mendi pribatuaren 5 hektareatik, lurzati bakar baten 20 hektareatik edo kokaleku sakabanatuaren 35 hektareatik gorako azalerak ukitzen dituzten jarduketei dagokienez, basogintza kudeaketa iraunkorrari buruzko plana, antolamendu proiektua edo tresna baliokidea aurkeztu beharko da, laguntza eskuratu ahal izateko.

5.3 Hala dagokionean, eraikuntzak edo instalazioak egiteko, behar den udal lizentzia eskuratu beharko da.

**6. artikulua. Kostuak neurtzea eta inbertsioak balioztatzea**

6.1 Neurri horiei begira inbertsioak balioztatu ahal izateko eta lanen tipologiak ahalbidetzen duenean, II. eranskinean jasotako moduluak ezartzen dira. Modulu horiek eguneratu ahal izango dira, hala badagokio, Nekazaritza Sailaren Foru Agindu bidez.

6.2 Mendi Zerbitzuko txosten teknikoaren bidez behar bezala justifikatutako salbuespeneko kasuetan izan ezik, laguntza eskaeraren xede diren inbertsioetarako balorazio zehatzak egin ahalko dira, modulu aplikagarrietan adierazten direnez bestaldeko balorazioak, alegia.

6.3. Inbertsioen kostu bateratua modulaturik ez dagoen kasuetan, onuradunak, eskaerarekin batera, gutxienez hornitzaile desberdinen hiru eskaintza aurkeztu beharko ditu, baldin eta diruz lagun daitezkeen ezaugarri berezien ondorioz merkatuan ez badago hori hornitzen edo ematen duten behar adina entitate. Kostuak apaltzeko printzipioari men eginez, dirulaguntza kalkulatzeko inbertsiorik ekonomikoena hartuko da kontuan.

6.4 Ez BEZa, ez eta bestelako zergak edo tasak ere, ez dira diruz lagunduko.

**7. artikulua. Gastu onargarriaren mugak**

7.1 Onuradun eta urte bakoitzeko, diruz lagun daitezkeen inbertsioa edo inbertsioen batuketa gehienez 60.000 eurokoa izango da eta gutxienez 2.000,00 eurokoa, baldin eta baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoetarako laguntzarik ez badago, horiek ez baitute gutxienerako mugarik.

7.2 Interes orokorreko inbertsio publikoei dagokienez eta Mendi Zerbitzuaren aldeko txostena egonez gero, gehieneko kopurua gainditu ahalko da.

**8. artikulua. Laguntzen era, ehunekoa eta zenbatekoa**

Laguntzek zuzeneko diru-laguntzen moldea hartuko dute neurri edo laguntza lerro bakoitzean adierazitako gastu onartuaren gaineko kopuruetan.

**9. artikulua. Espedienteak izapidetzeko lehentasunezko taldeak**

Partida bera duten neurrien laguntzak izapidetzeko, honako lehentasun taldeak ezartzen dira tramitazioan, behin neurri bakoitzean ezarritako lehentasunezko irizpideak aplikatuta, taldeon arabera izapidetzeko:

M08.4 1. neurria: "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea"

M08.3 2. neurria: "Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea"

M08.1 3. neurria: "Basotzea eta baso azalera sortzea" M04.3 4. neurria: "basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak" M08.6 5. neurria: "basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea"

Talde bakoitzak ondorengoak baino lehentasun handiagoa izango du, talde bateko eskari guztiak artatzeko adina kreditu ez badago, ez dira hurrengo taldekoak aztertuko.

Talde bakoitzaren barruan, punturik gehien eskuratzen dutenek izango dute lehentasuna, betiere neurri bakoitzean ezartzen diren eta foru dekretu honen II. tituluan azaltzen diren lehentasun irizpideak aplikatu eta gero.

**10. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea, era eta tokia**

10.1 Urtero laguntzen deialdia onartuko da; haren barruan honako hauek jasoko dira:

Laguntzak deitzeko laguntza lerroak edo neurriak.

Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdia ebazteko gordetzen diren kredituak.

10.2 Laguntza eskaerak Arabako Foru Aldundiaren erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira edo inbertsioaren xede diren lurren kokapenari dagokion Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan, betiere eskatutako inbertsioari ekin baino lehen.

10.3. Eskaerak inprimaki normalizatuan aurkeztuko dira eta harekin batera agiri hauek aurkeztuko dira:

10.3.1 Eskatzailearen NAN/IFZren fotokopia. Ustiategi elkartuak izanez gero, eratze agiria aurkeztuko da, bai eta kide bakoitzaren NANaren fotokopia ere.

10.3.2 Arabako Lurralde Historikotik kanpoko zerga egoitza duten eskatzaileei dagokienez, zerga betebeharrak egunean ordainduta dituztela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ondorio horietarako, otsailaren 11ko 18/1997 Foru Dekretuan, urriaren 5eko 58/2004 Foru Dekretuak partez aldatuan (azken foru dekretu hori dirulaguntzen onuradunek zerga eginbeharrak betetzen dituztela kreditatzeko prozedurari eta horrela kreditatu beharrekiko salbuespen araubideari buruzkoa da), xedatutakoa aplikatuko da.

10.3.3 Nekazaritza Sailari baimena ematea, sail horrek eska ditzan zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan zein egoeretan dagoen egiaztatzeko agiriak.

10.3.4 Laguntza eskatzen deneko lurren jabetza edo erabilera eskubidea egiaztatzen duen agiria. Halaber, 4.1. artikulua zehaztutako kasuan, berariazko eskuordetze agiria erantsiko da.

10.3.5 Memoria edo txosten teknikoa, manuzkoa den kasuetan.

10.3.6 Baso kudeaketa iraunkorrari buruzko plana, antolamendu proiektua edo tresna baliokidea, manuzkoa denean.

10.3.7 Planoa eskala egokian eta SIGPAC basean, katastroko lurzatiak eta jarduketa eremuak identifikatuz.

10.3.8 Ingurumen eraginaren ebaluazioari buruzko azterlana, manuzkoa denean.

10.3.9 Hirugarrenen fitxa, bankuko datuak jasoz, laguntza kobratu ahal izateko.

Eskatzaileak erakunde publikoak badira, ez dira eskatuko aurreko 10.3.1, 10.3.2, 10.3.3 eta 10.3.4 zenbakietan ezarritako agiriak.

10.3.10 Dirulaguntzak edo laguntza publikoak eskuratzea eragozten duen administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez dagoela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, ez eta horretarako legezko inolako debekurik izan ere, sexu-bereizkeriagatiko debekuak barne.

10.3.11 Itzulketa edo zehapen prozesurik ez duela abian eta, hala badagokio, dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak egunean ordainduta dituela zehazten duen erantzukizunpeko adierazpena, betiere azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak, dirulaguntzenak, ezarritakoari jarraituz.

10.3.12 Hala badagokio, laguntzak lehenesteko aurreikusitako kasuak egiaztatze behar den dokumentazio egokia.

10.3.13 Eskaeran adierazten bada emakumezkoen kontratazio berriak egingo direla, zinpeko adierazpena aurkeztu beharko da. Adierazpen horretan berariaz adierazi beharko da nola eramango diren aurrera laguntzaren xede diren jarduketak edo inbertsioak eta zein izango den kontratazio mota.

10.4 Eskaeran akatsik edo hutsunerik atzematen bada edo eskaera osatu gabe badago, eskatzaileari errekerimendua igorriko zaio jakinarazpena jaso eta hamar egun balioduneko epean hori konpon dezan. Epe hori igarota, dena delako akatsa konpondu ezean, eskaera bertan behera utziko da, betiere azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

10.5 Laguntza eta ordainketa eskaerak osorik edo partzialki ezeztatu ahal izango dira edozein unetan, 809/2014 (EE) Arautegiaren 3. artikulua ezarritako mugak kontuan hartuz.



## 11. artikulua. Izapidetzea

11.1 Eskaerak aurkezteko epea amaituta, espedienteak Mendi Zerbitzuak izapidetuko ditu. Zerbitzuak aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta hari buruzko txosten teknikoak prestatuko du; hala badagokio, txosten horretan jasoko da ea eskatutako jarduketak Natura 2000 Sarearekin bateragarriak diren ala ez.

11.2 Espedientea instruitzen den bitartean, laguntzaren organo kudeatzaileak behar dituen argibide eta agiri gehigarriak eskatu ahalko ditu, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko. Interesdunak izapide hori betetzeko ezer egiten ez badu, azaroaren 26ko 92/1992 Legeak, Administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 76.3 artikuluan xedatutakoa bete beharko du.

11.3 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzen emakida norgehiagoka araubidean izapidetuko da, lerro edo neurri bakoitzerako oinarri hauetan jasotako balorazio irizpideen arabera. Izan ere, irizpideok zenbait arautegiren eta talderen arabera ezartzen dira; hona hemen: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren abenduaren 17ko 1305/2013 (EE) Arautegia, Batzordearen martxoaren 11ko 807/2014 Arautegi Eskuordetua, uztailearen 17ko 808/2014 Betearazpen Arautegia, uztailearen 17ko 809/2014 Betearazpen Arautegia eta foru dekretu honen 9. artikulua ezarritako lehentasun taldeak.

11.4 Behin espedienteak aztertuta, kide anitzeko balorazio organoak beharrezko txostena prestatuko du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuz, ezarritako lehentasunen arabera irizpideak aplikatuz eta aurrekontuaren eskuragarritasuna kontuan hartuz. Orobat, hala badagokio, espediente bakoitza ezesteko arrazoiak zehaztuko ditu eta baietsitako espedienteek beharbizunak betetzen dituztela azalduko du.

11.5 Laguntzak emateko kide anitzeko balorazio organoko kideak honako hauek izango dira:  
Mendi Zerbitzuaren burua.

Mendi Zerbitzuari atxikitako teknikari bat, laguntzetan aditua.

Nekazaritzako Idazkaritza Teknikoko Zerbitzuaren burua.

Administrazio Kudeaketa Atalaren burua.

## 12. artikulua. Ebazpena eta jakinarazpena

12.1 Foru Organo eskudunak ebatziko ditu espedienteak, indarrean den araudiaren arabera; espedienteari buruzko ebazpenak amaitu egiten du administrazio bidea, eta, haren aurka, administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiari, errekurtsio hori arautzen duen araudiaren arabera, hargatik eragotzi gabe berraztertze errekurtsio aukerakoa aurkeztea.

12.2. Azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, administrazio publikoen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 42. artikuluan ezarritako ondorioetarako, prozeduraren ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik aurrera. Epealdi hori igaro eta berariazko ebazpenik eman eta jakinarazten ez bada, eskabidea ezetsi dela esan nahi du, halaxe xedatzen baita azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrenaren, dirulaguntzenaren, 25.5 artikuluan.

12.3 Emakida ebazpenek honakoak ezarriko dituzte: zenbatekoak diren emandako dirulaguntzak, zein inbertsiotarako eman diren, zein den diruz lagundutako gastua eta zein den horiek finantzatzeko jatorria. Ebazpena negatiboa izenez gero, arrazoiak zehaztu beharko da.

12.4 Laguntzaren ebazpena banaka jakinaraziko da eta, ere berean, honako informazio hau guztia ere adieraziko da jakinarazpenean: emandako dirulaguntzaren zenbatekoa, ehunekoa, diruz laguntzen den inbertsioa, diruz lagundutako inbertsioaren gaineko gastua, gauzatzeko epea eta urtekoak eta, hala badagokio, laguntza ezesteko arrazoiak.

12.5 Europako funtsak ere erabiliz finantzatzen bada, jakinarazpenean adierazi beharko da Europar Batasunak parte hartzen duela finantzaketan; hala, Europar Batasuneko kasuan kasuko funtsak emandako laguntzaren zenbatekoa edo ehunekoa adieraziko da, baita finantzaketan parte hartzen duten gainerako erakundeek emandakoa ere.

### 13. artikulua. Laguntzen ordainketa

13.1 Dirulaguntzak ordaintzeko, onuradunek lanak amaitu dituztela jakinarazi eta idatziz eskatu beharko dute laguntza gehienez ere 10 egun naturaleko epean ordaintzeko, betiere laguntza emateko ebazpenean zehaztutako burutzapen epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

13.2 Ordaintzeko eskaera horrekin batera honako hauek aurkeztu behar dira:

– Diruz lagundutako jarduera bera finantzatzeko bestelako diru sarrerarik edo dirulaguntzarik ez dela jaso dioen erantzukizunpeko adierazpena.

– Egindako jardunen xehetasunak.

– Moduluen bitartez diruz lagundutako jarduerarik egotekotan, jarduera-mota bakoitzerako egindako unitateetako kopuruaren xehetasunaren.

13.3 Dirulaguntzak ordainduko dira, behin inbertsioei buruz behar diren kontrolak eta egiaztapenak egin ondoren, benetan egindako inbertsioen arabera eta oro har egiaztapen partziala edo behin betikoa aintzat hartuz; horretarako, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

– Egindako gastuen gaineko justifikazioa, jatorrizko faktura eta konpubalioztatuarenreko kopia aurkeztuz. Jatorrizko faktura kontrolatuko da, zigilu bat jarri honakoa zehaztuz: Arabako Foru Aldundiak diruz lagundu duela eta, hala badagokio, LGENF funtsak ere batera finantzatu duela. Hori hala izango da moduluen arabera emandako laguntza izan ez bada; azken kasu horretan ez da fakturarik aurkeztu beharko.

– Faktura banku transferentziaren bidez ordaindu delako frogagarria edo merkataritzako trafiko juridikoan balio frogagarria duen agiri baliokidea.

Nolanahi ere den, 2.500,00 euroko edo gehiagoko gastuak banku transferentziaren edo bankuko beste tituluren baten bidez egiaztatuko beharko dira, urriaren 29ko 7/12 Legeak, iruzurraren kontrako prebentzio ekintzei eta iruzurraren kontra borrokatzeko ekintzei buruzkoak, 7. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Moduluen bitartez kuantifikatutako inbertsioak izan daitezela kasuan, ordainketa izango da benetan egindako eta Nekazaritza Sailak egiaztatutako unitate fisikoen arabera.

Hala badagokio, emakumezkoen kontratu berriak egin zaizkiela egiaztatzeko, langileek Gizarte Segurantzaren alta hartu dutela ziurtatzen duen dokumentazioa, basogintzako enpresa ziurtagiriak edo langile autonomoek emandako faktura. Emakidan laguntza bat lehenetsia izan eta agiri horiek aurkezten ez badira, horrek berekin ekarriko du laguntza bete ez izana.

– Kudeaketa organoek eskatzen dioten behar adina dokumentazio.

13.4 Laguntzaren baten ordainketa urte batean baino gehiagotan zatitu bada, aurreikusitako urteetan ordainduko da, laguntza gordailutu zen aurrekontuen pentzura. Nolanahi ere, azken urtesaria edo ziurtapena ordaintzeko, inbertsioak guztiz gauzatu egon beharko du.

13.5 Honako dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradun diren pertsonak kobratzeko eskubideak laga ahal dizkiete kontratista esleipendunei edo hornitzaileei; hala, zuzenean jasoko dute esandakoek ordainketa bakoitzari dagokion dirulaguntzaren zenbatekoa.

13.6 Laguntzak jasotzen dituzten erakunde publikoek agiri bidezko justifikazioa aurkeztu beharko dute lanen esleipenak Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legeak ezarritakoari lotu zaizkiela ziurtatzeko.

#### 14. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Oro har, laguntzen onuradunek honako betebeharrak izango dituzte:

14.1 Emandako dirulaguntza onartzea eta eman zaien erabilera zehatzerako baliatzea, emakidaren ebazpenean ezarritako baldintzak betetz. Laguntzaren emakidaren jakinarazpena jasotzen duenetik hamar egun balioduneko epean onuradunak ez badio dirulaguntzari berariaz eta idatziz uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.

14.2 Lanak edo proiektuak aurrera eramatea emakida ebazpenean ezarritako epearen barruan.

14.3 Dirulaguntzaren xede izan diren inbertsio eta gastuei eustea 5 urteko epean gutxienez, gauzatuak izan direnetik. Basotzeko laguntzak salbuetsiko dira; izan ere, halakoetan gutxieneko epea espeziearen txandari dagokiona izango da. Hala, onuradunak basotzea bertan behera utzi edo suntsitzen badu, hari egotz dakioken arrazoiarengatik, inbertsioa ez dela bete ulertuko da.

14.4 Dekretu foru honetan oinarrituz laguntza neurrien xede diren lurren eskualdaketei dagokienez, titulartasun berria subrogatu beharko da eta, beraz, onuradunak bere gain hartutako konpromisoak bete beharko ditu.

14.5 Foru dekretu honen itzalpean jasotako dirulaguntzei dagokienez dituzten funtzioak baliatuz, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ogasun sailek, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde ordaintzaileko organo eskudunek, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak eta Europar Batasuneko organo eskudunek laguntzari buruz eskatzen duten informazio oro ematea.

14.6. Ezarritako informazio eta publizitate betebeharrak betetzea. Ondorio horietarako, eragiketa bat aurrera eramaten denean, onuradunek LGENFtik eskuratutako laguntzaren berri emango dute jendaurrean, honela:

a) Halakorik egonez gero, onuradunen webgunean, batera finantzatutako eragiketari eta haren helburuei buruzko deskripzio labur bat eginez eta EBren laguntza finantzarioaren laguntza nabarmenduz.

b) Azpiegitura edo eraikuntza lanei dagozkien eta 10.000 eurotik gorako laguntza publikoa jasotzen duten eragiketetan: gutxienez A3ko neurria izango duen panela, eragiketari buruzko informazioa jasoz eta EBren laguntza finantzarioa nabarmenduz; hori guztia ikusgai jarriko da jendaurrean, ageri-ageriko toki batean. Informazio horrek gutxienez kasu bakoitzean erabilitako euskarriaren ehuneko 25 bete beharko du.

14.7 Europar Batasuneko, estatuko, erkidegoko edo foru aldundiko arautegiek administrazio arloan, lurrean bertan, a posteriori edota kalitateari buruz ezarritako kontrolen pean jartzea.

14.8 Hala dagokionean ("Basotzea eta baso azalerak sortzea" M08.1 neurria), baldintzen betetze mailaren pean jartzea.

#### 15. artikulua. Ez betetzeak

15.1 Onuradunak honako foru dekretu honetan eta laguntza emateko ebazpenean ezarritako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean, edo laguntza eskuratuz gero horretarako beharrezkoak diren betekizun guztiak bete gabe, emandako dirulaguntza jasotzeko eskubidea galduko du eta, hala badagokio, jasotako zenbatekoak itzuli beharko dizkio Arabako Foru Aldundiko Ogasunari, bai eta legezko interes dagokien zenbatekoa ere, eta laguntza bera edo geroko ordainketetan jaso beharreko zenbatekoak gutxituko zaizkio, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentzienak, ezarritakoari jarraikiz bidezkoak diren egintzei kalterik egin gabe.

15.2 Epe zehatz batean zehar diruz lagundutako inbertsioa mantentzeari buruz 14.3 artikuluan ezarritako konpromisoa ez betetzeak berekin ekarriko du jasotako laguntza itzuli edo hainbanatu beharra, betiere mantendua izan ez den denbora tarteari dagokionez.

15.3 Gerta daiteke emakida ebazpenean ezarritako epean diruz lagundutako lanak edo proiektuak ez gauzatzea edo onetsitako inbertsioaren zenbatekoaren ehuneko 50etik behera gauzatzea, betiere Nekazaritza Sailak behar bezala baliozkotutako justifikaziorik gabe; halakoe-tan, foru dekretu honetan jasotako laguntzak jasotzeko eskubidea galduko da lana edo proiektua gauzatu beharreko ondorengo bi deialdietan zehar.

15.4 Foru dekretu honetan oinarrituz laguntza neurrien xede izandako lurren eskualdaketei dagokienez, titulartasun berria subrogatzen ez bada onuradunak bere gain hartutako konpromisoak betetzeko, jasotako dirulaguntzak itzuli beharko ditu, betiere itzulketan beharrezko interesak gehituta.

15.5 Behar denean, emakumeentzako kontratu berriak formalizatu direla egiaztatzeko agiriak ez aurkezteak laguntza galtzea ekarriko du.

15.6 Itzultzen diren zenbatekoak zuzenbide publikoko diru sarrera izango dira, legezko ondorioetarako.

15.6 Nekazaritza Sailaren foru agindu bidez erabakiko da dirulaguntzaren itzulketa osoa edo horren zati bat, ikuskapen edo kontrol txostena eta itzultzeko proposamena ikusirik, eta onuradunari entzun ondoren.

15.7 Dirulaguntza osorik edo partez ordaintzea foru aginduaren bidez xedatuko du Nekazaritza Sailak, ikuskapen edo kontrol txostena eta dirulaguntza itzultzeko proposamena ikusi ondoren eta onuradunari entzun ondoren.

15.8 Dirulaguntza osoa edo zati bat itzultzeko prozeduraz gainera, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauak ezarritako arau hausteen ziozko zehapen prozedura abiarazi ahalko da.

#### **16. artikulua. Araubide juridikoa**

Foru dekretu honetan ezarritako dirulaguntzen onuradunek Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei eta Transferentziei buruzko otsailaren 7ko 3/1997 Foru Arauan, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorrearen Araudian ezarrita dagoena bete behar dute, baita Europako, Estatuko eta autonomia erkidegoko gainerako xedapen aplikagarriak ere.

#### **17. artikulua. Bateragarritasuna beste laguntza batzuekin**

17.1 Dekretu honetan garatzen diren laguntzak bateraezinak izango dira beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste zeinahi dirulaguntzarekin, xede eta helburu berdinak dituenen, baldin eta kontrakoa berariaz arautzen ez bada Europar Batasuneko, estatuko, Euskal Autonomia Erkidegoko edo foruko legerian, edota Euskadiko LGP 2015-2020 egitasmoan.

17.2 Azken kasu horretan, laguntzen zenbatekoak (bera bakarrik edo beste batzuekin batera) ezin izango du onuradunek garatu beharreko jardueraren kostuaren muga gainditu edo laguntza eman zeneko xedearen muga. Muga hori gainditzen bada bestelako laguntzak eskuratu direlako, foru dekretu honetan aurreikusitako laguntzak emateko ebazpena aldaraziko da.

#### **18. artikulua. Laguntzaren finantzazioa**

18.1 Foru dekretu honetan ezarritako laguntzetara zuzentzen diren baliabide ekonomikoak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailaren eta Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzaren (LGENF) aurrekontu kredituetatik aterako dira, betiere Europako Batzordeak onartutako Euskal Autonomia Erkidegoaren Landa Garapenerako 2015-2020ko Programan azaltzen diren eta 2. artikuluan jasotzen diren baterako finantzazioaren kopuruekin bat etorritik. Arabako Foru Aldundiaren Sailak finantzatutako laguntzen zatiaren muga izango dira deialdi bakoitzean ezarritako zenbatekoak.

18.2 Halaber, Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritza Sailak finantzazio osagarria eman ahaliko du, foru dekretu honen 2. artikulua jasotako laguntzen baliabide ekonomikoak handitzera bideratutakoa.

18.3 Foru dekretu honetan babestutako espedienteren batek aurreikusitako batasunaren baterako finantzaziorik eskuratzen ez badu, hori laguntza nazionaltzat hartuko da, bai eta "basoen kontserbazioa" izeneko neurria ere. Kasu horretan, laguntza horiek Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren aurrekontu kredituen bidez finantzatuko dira osorik.

18.4 Arabako Foru Aldundiak laguntzaren guztizko zenbatekoa ordainduko dio onuradunari, hala badagokio, LGENFk finantzatutako zatia, bai Arabako Foru Aldundiak berak finantzatutako zatia. LGENFetik datorren laguntza zatia Arabako Foru Aldundiari ordainduko zaio bere erakunde ordaintzailearen bidez, eta Nekazaritza Sailaren aurrekontuko partidetan sartuko da, sail horren izenean horretarako irekitako kontuan.

## II. TITULUA

LGENFk batera finantzatutako laguntza lerro edo neurriak

### 19. artikulua. Neurria: M08.1 Basotzea eta baso azalera sortzea

Neurriaren xedea da zuzaitz gabe dauden lurretan baso masak sortzea zuzeneko landaketa edo erentza bidezko basotze lanak eginez edo, behar bezain trinkoa den edo tokiaren baldintzetara egokiturik dagoen azalera izanez gero, hobekuntza eta kontserbazio lanak egingo dira berezko birsorkuntzari begira.

19.1 Diruz lagun daitezkeen jarduketak.

Basotzeko inbertsioak eta gastu osagarriak diruz laguntzeko modukoak izango dira; halakoen barruan honakoak sartzen dira: lurra prestatzeko lana, landarearen kostua, zulaketa, landaketa, erentza, mikorrizazio kostua, babesak, hesiak edo itxitura, lehenengo urteko marren birjarpena.

Erakunde publikoen jabetzako lurri dagokienez, landaketa eta babes kostuak baizik ez dira diruz lagunduko.

Honakoak baztertu dira:

EAEko lurralde plan sektorialean balio estrategiko handikotzat hartutako lurak basotzeko lanak.

Lurraren kontserbazioa eta erregimen hidrikoa arriskuan jar dezakeen lur prestatketa azaltzen duen edozein basotze.

Ibai eta urtegietako herri jabari hidraulikoko zortasun eremuan autoktonoak ez diren espezieak erabiltzen dituzten basotzeak.

Paisaia berezi batean, hondakin arkeologikoetan, monumentuetan eta abarretan inpaktu negatibo nabarmena izan dezaketen basotzeak.

Manuzkoa denean, ingurumen eraginari buruz aurreikusten diren ebaluazioen ondorioz onartzen ez diren basotzeak, betiere aplikagarria den legeriaren arabera.

Abuztuaren 2ko 630/2013 Errege Dekretuan sartutako espezieekin egitekoak diren basotzeak; izan ere, dekretu horretan espezie exotiko inbaditzailearen Espainiako katalogoa arautzen da.

Gabonetako arbolekin egindako basotzeak, energia ekoizteko sortutako masak, eukaliptoak edo hazkunde azkarreko bestelako espezieak ere, baldin eta mozteko duten txanda 20 urtetik beherakoa bada.

19.2 Baldintza zehatzak

19.2.1 Basotze lanak egiteko aukeratutako espezieak basoko urtaroren baldintzetara egokiturik egongo dira eta honako baldintza hauek beteko dituzte.

Natura 2000 Sarearen zati diren tokietan basotzea adierazitako kudeaketa helburuekin izango da bateragarria.

Mendi pribatu batean 5 hektareatik gorako azalerarik edo mendi publiko batean 20 hektareatik gora egonez gero lurzati bakar batean edo kokaleku sakabanatuan 35 hektareatik gora, hostozabalen espezie autoktonoen nahasketa bat erabili beharko da, gutxienez azaleraren ehuneko 10ean.

Landatu beharreko zuhaitzen dentsitatea 550etik 1.100 zuhaitzera bitartekoa izango da hektarea bakoitzeko, behar bezala justifikatutako kasuetan izan ezik.

Basotzeko lanean, lurlean, erabili beharreko prestaketa mota eskaeran adieraziko da, betiere zehatzuz baliabide mekanizatuak edo hondakinen erreketa bidezko ezabaketa. Azken kasu horri dagokionez, erreketa egiteko baimena lortu beharko da. Malkarra, lurraren egoera edo klima egoera kontuan hartuz, makineria mugatu edo lurra eskuz prestatzeko lana laguntzaren baldintza gisa ezarri ahalko da.

Basotzea egiaztatu ondoren, azalera SIGPACeko baso erabilera izan beharko du; onuradunek hori eguneratzeko betebeharra izango dute.

19.2.2 Ugalketako baso materialak ekoizteko, merkaturatzeko eta erabiltzeko indarrean da goen araudia bete beharko da, betiere basoetako landaretza hobetzeko indarreko programetan ezarritakoaren arabera.

19.2.3 Intsinis pinuko landararik erabiliz gero basotzeak aurrera eramateko, landarea aukeratuak kategoriako eta goragoko kategoriako ugalketaren baso materialetik etorriko da edo legez baimendutako inportaziotik. Hazitegiek Euskal Herriko itsasertzeko edo mendietako landare autoktonoaren ekoizpena ezin badute bermatu eskaerari aurre egiteko behar adinako kopuruan, laguntza ukatu ahal izango zaie jatorrizko erregio hori erabiltzen ez duten birlanaketei.

19.2.4 Itxiturak eta babesak basotzea babesteko erabiliko dira edo berezko birsorkuntza lortzeko. Itxituraren kalitatea behar bezainbestekoa izango da basotzearen mantenimendua bermatzeko eta gehienez ere hiru urteko epean jarri beharko da birlanaketa egin ondoren.

19.2.5 Itxitura edo babeserako laguntzak berekin dakar hura kendu beharra, behin arbola-diaren biziraupena bermatuta. Kendutako materiala birziklatu beharko da edo baimendutako biltza zentro batera lekualdatu. Alde batera utzi behar dira arrazoi teknikoengatik ukatutako basotze itxiturak eta babesak.

19.2.6 Espezie autoktonoen ereintza baizik ez da diruz lagunduko, behin Mendi Zerbitzuaren aldeko txostena eskuratuta. Haziaren kalitate eta jatorria egiaztatuko dira dirulaguntzarako espedienteari hornitzailearen edo hazia ziurtatzeko erakunde eskudunaren agiria erantsiz.

19.2.7 Nekazaritza eta ingurumen egoera egokiak eta legezko kudeaketa betekizunak (baldintzak), 1306/2013 (EE) Arautegian eta abenduaren 19ko 1078/2014 Errege Dekretuak ezarritakoak, nahitaezkoak izango dira ustategi osoan, neurri horren laguntzak eskuratzeko, ezarpen kostuei dagozkien inbertsioak izan ezik.

### 19.3. Dirulaguntzaren zenbatekoa

19.3.1 Laguntza kalkulatzeko, espezie taldeak ezartzen dira, bai eta foru dekretu honen I. eta II. eranskinetan azaltzen diren gehieneko inbertsio kopuruak edo moduluak ere.

19.3.2 Laguntzaren zenbatekoa kopuru horiei honako portzentajeak aplikatzearen ondoriozkoa izango da espezie taldeen arabera:

Ziklo laburra: ehuneko 20, eta hori ehuneko 10ean handitu ahalko da lurra eskuzko baliabideak erabiliz prestatzen bada eta hondakinak erretzeke. Hasierako portzentajeari ehuneko 20 gehigarria erantsi ahalko zaio, baldin eta basotu beharreko lurra kudeaketa planean edo antolamendu planean jasota badaude.

Ziklo ertaina: ehuneko 35, eta hori ehuneko 10ean handitu ahalko da lurra eskuzko baliabideak erabiliz prestatzen bada eta hondakinak erretzeke. Aurreko portzentajeei ehuneko 5 gehigarria erantsi ahalko zaie, baldin eta basotu beharreko lurrak kudeaketa planean edo antolamendu planean jasota badaude.

Hostozabal autoktonoen ziklo ertaina: ehuneko 65, eta hori ehuneko 10ean handitu ahalko da lurra eskuzko baliabideak erabiliz prestatzen bada eta hondakinak erretzeke. Aurreko portzentajeei ehuneko 5 gehigarria erantsi ahalko zaie, baldin eta basotu beharreko lurrak kudeaketa planean edo antolamendu planean jasota badaude.

Ziklo luzea: ehuneko 80, eta hori ehuneko 5ean handitu ahalko da lurra eskuzko baliabideak erabiliz prestatzen bada eta hondakinak erretzeke. Aurreko portzentajeei ehuneko 5 gehigarria erantsi ahalko zaie, baldin eta basotu beharreko lurrak kudeaketa planean edo antolamendu planean jasota badaude.

19.3.3 Itxituren eta babesen dirulaguntzaren gehieneko kopurua ezarriko da erabilitako espezie taldearen arabera; horretarako, II. eranskinean zehazten diren gehieneko inbertsioen edo moduluen zenbatekoak izango dira aplikagarri. Horrek basotzearen laguntza kopuru bera izango du.

19.3.4 Ereite eta mikorrizazio jardueren gehieneko dirulaguntza ehuneko 50ekoa izango da, Mendi Zerbitzuaren txosten teknikoak onartutako inbertsio zenbatekoen gainean.

#### 19.4 Dokumentazio zehatza

19.4.1 Laguntza eskaeran honakoak zehaztuko dira: espeziea, mota, basotzeetako lurra prestatzeko lanean erabiliko diren bitartekoak (mekanizatuak zehaztuz edo hondakinen erreketa bidezko ezabaketa) eta landaketaren dentsitatea.

19.4.2 Erabilitako haziaren eta landarearen jatorria egiaztatuko da laguntza ordaintzeko eskaerari hornitzailearen agiria erantsiz, betiere behar bezala beteta.

19.4.3 Mikorrizazioaren operazioan eskaerari erantsi beharko zaio basogintzako teknikari baten izenpetutako memoria tekniko bat; memorian horretan honakoak adieraziko dira: helburuak, erabili beharreko metodologia eta baso masaren balio ekonomikoaren gehikuntza aurreikusia.

#### 19.5 Lehenetsun irizpideak

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietan aurrera eramaten diren jarduketak: 25 puntu.

2. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

**20. artikulua. Neurria: M08.3. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak prebenitzea**

Neurri honen xedea da basoen babes baldintzak sendotzen dituzten baso masen berezko arriskuengatiko kalteak prebenitzeko jarduketei ekitea edo arrisku horien babes azpiegiturak hobetzea.

**20.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak.**

Basoko prebentzio jarduketak diruz lagundu ahalko dira, hala nola mehazketak, sasitzak kentzea, inausketak, hobetze mozketak, tratamendu fitosanitarioak, inausketa edo mehazketako hondakinak kentzeko lanak edo beharrezkoak izan daitezkeen bestelako baso lanak.

Halaber, diruz laguntzeko modukoak izango dira suteen edo berezko arriskuen kontra eskala txikian aurrera eramandako tokian tokiko prebentzio jarduketak, esaterako suebakiak sortzeko lanak, artzaintzako animalien erabilera suebakiak mantentzeko, higaduraren kontra lurrak finkatzeko azpiegiturak eraikitzea edo basoko suteak, izurriak eta gaixotasunak zaintzeko instalazioen ezarpena eta komunikazio ekipoak.

Baso masen txandan jarduketan gehieneko kopuru bat lagunduko diruz; hona hemen jarduketa horiek:

sasitzak kentzea: 3 koniferetan eta 5 hostozabaletan

inausketak: 2

mehazketak, hobetze mozketak eta bakanketak: 2 jarduketa ez-emankor

tratamendu fitosanitarioak: 2

Inausketaren garaiera gehienez ere arbolaren garaiera osoaren heren bat izango da.

Ez dira diruz lagunduko:

Zuhaitzaren enberrari edo inausketaren ondorengo zur eraketaren kalitateari kalte egiten dioten inausketa askadunak.

Neurritz gaineko inausketak edo goiztiarregiak. Koarentenako gaixotasunik sortuz gero, laguntza ukatu ahal izango da gaixotasuna sortzen den eremuetan.

Sasitzak kentzeko lanak, tratamendu fitosanitarioak, inausketak, mehazketak eta bakanketak, arrazoitako teknikoengatik ukatuak izan diren basotzeetatik datozen masetan.

**20.2 Laguntzaren zenbatekoa**

Laguntzaren zenbatekoa izango da II. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 50eko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa; hala ere, hobetze mozketei, suebakiak larre bihurtzeko jarduketei, inausketa hondakinen kudeaketari, hondakinak eskuz kenduz sortutako bakanketei eta txikitzeko lanari ehuneko 85eko portzentajea aplikatuko zaie.

**20.3 Dokumentazio zehatza**

Foru aldundiek edo Eusko Jaurlaritzak basoak babesteko prestatu dituzten planetako basoguneak arrisku ertain edo handiko kategorietan azal daitezke; halako kasuetan, basoko suteak prebenitzearekin zerikusia duen laguntzak eskuratu ahalko dituzte.

Tratamendu fitosanitarioei dagokienez, beharrezkoa izango da erosketa faktura aurkeztea edo tratamendua egin duen enpresarena, betiere aplikatutako produktuaren berri emanaz.

**20.4 Lehentasun irizpideak**

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:



1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu

2. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 20 puntu

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

#### **21. artikulua. Neurria: M08.4. Basoetan suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako kalteak konpontzea**

Neurri honen helburua da suteek, hondamendi naturalek eta katastrofeek eragindako edota klima aldaketaren ondorioz sortutako baso potentzial kaltetua eraberritzeko jarduketak aurrera eramatea.

21.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak eta baldintzak.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira:

Baso masak eraberritzeko jarduketak, ukitutako materialen hondakinak kudeatuz edo horiek basotuz edo mehatzeko baso lanak, sasitzak kentzeko lanak, inausketak edo hobetze mozketak eginez.

Higaduraren eta irristaduren kontra lurrak finkatzeko azpiegiturak konpontzea.

Basoko suteak, izurriteak eta gaixotasunak eta komunikazio ekipoak zaintzeko instalazioak konpontzea.

Laguntza jasotzeko ezinbesteko baldintza honakoa izango da: agintaritza publiko eskudunak ofizialki aintzatestea sute edo natura hondamendia izan dela eta gertakari horiek edo gaixotasun begetal edo izurritea desagerrarazteko edo hari eusteko neurriek (2009//29/EE zuzentarauaren arabera) gutxienez baso potentzialaren ehuneko 20ko suntsiketa eragin dutela.

21.2 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoa izango da II. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 50eko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa; hala ere, hobetze mozketei ehuneko 85eko portzentajea aplikatuko zaie eta ukitutako materialak kentzeko lanei ehuneko 100ekoa.

21.3 Dokumentazio zehatza

Haien larritasuna dela-eta berehalakoan konpondu beharreko azpiegitura edo basoak ukitzen duten gertakaririk izanez gero, onuradunek ahalik eta azkarren jakinaraziko diote Mendi Zerbitzuari, konponketa lanei ekin baino lehenago; zerbitzu horrek beharrezko kontrolak egingo ditu. Laguntza eskaera bideratu beharko da kalteak izan diren dataren ondorengo deialdian.

21.4 Lehentasun irizpideak

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu

2. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 20 puntu

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

## **22. artikulua. Neurria: M08.5. Baso ekosistemen egokitze gaitasuna eta ingurumen balioa gehitzeko inbertsioak**

Neurri honen xedea da baso estalduraren egoeraren hobekuntza eragiten duten inbertsio ez-emankorrak aurrera eramatea, klima aldaketari egokitzeko eta ekosistemak zerbitzuez zuzkitzeko ikuspuntutik abiatuz.

22.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira:

Merkataritza aprobeixamendurik gabeko baso jarduketak, hala nola baso txikiko hobetze mozketak, berezko birsorkuntzaren aldeko laguntza, zur hilaren sorkuntza eta aberasteko baso landaketak.

Aisialdi eremuetan, bidezidorretan eta seinaleetan egindako inbertsioak eta intereseko habitatetan egindako inbertsioak, hala nola itxitura txiki edo mugatuak, hazien edo landare materialaren bankuen sorkuntza.

Baso jabetza publiko eta pribatua sendotzeko jarduketak: mugarritze proiektuaren alde aurreko lanak, mugarritzeak, mugarriak jartzea, enklabe eta lur mugakideen erosketa, multzoak eta mendi kontzentrazioak.

Antolamendu planak eta baso kudeaketa iraunkorreko planak, ondasunen eta okupazioen inbentarioak, partzuergoak, zamak eta zergak prestatzea eta abiaraztea herri erabilerako mendietan.

22.2 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoa izango da II. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 50eko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa; hala ere, hobetze mozketei ehuneko 85eko portzentajea aplikatuko zaie eta baso jabetza publikoa sendotzeko jarduketei eta mendi publikoetan antolamendu planak eta baso kudeaketa iraunkorreko planak prestatzeko lanei ehuneko 90ekoa.

22.3 Dokumentazio zehatza

Baso jarduketak aurreikusi beharko dira Administrazioak onartutako baso kudeaketa iraunkorreko plan batean, antolamendu plan batean edo lanabes baliokide batean. Natura 200 Sarearen barruan dauden lurri dagokienez, horiek guztiak bateragarriak izango beharko dute eremua kudeatzeko helburuekin.

Baso jabetza publikoa sendotzeko jarduketetarako laguntzen eskaeretan eskuragarri dauden jabetza tituluak aurkeztuko dira, bai eta, halakorik egonez gero, aldez aurreko prozedura administratibo edo judizialekin zerikusia duten bestelako agiriak ere.

#### 22.4 Lehentasun irizpideak

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz, jarduketa motaren arabera:

##### 22.4.1 Aldez aurreko azterlanak, mugarritzeak, mugarriak jartzea eta mendi kontzentrazioa:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Erabilera publikoko mendien (EPM) mugei eragiten dieten jarduketak: 20 puntu.

3. Aldez aurreko auziak edo betearazi beharreko epai judiziala dituzten mendietan aurrera eramaten diren jarduketak: 18 puntu.

4. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 15 puntu

5. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

6. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu

##### 22.4.2 Kudeaketa publikoko mendien antolamendu planak eta kudeaketa planak:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Antolamendu planen eta kudeaketa planen berrikuspenak: 20 puntu.

3. 900 ha-tik gorako azalera duten mendiak edo mendi azalerak: 15 puntu.

4. Emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 10 puntu.

##### 22.4.3 Gainerako eragiketak:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu

Jarduketa mota hauei dagokienez, puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

**23. artikulua. Neurria: M08.6 Basogintzako teknologietan eta baso produktuen transformazioan, mobilizazioan eta merkaturatzean inbertitzea**

Laguntzaren xedea da baso potentziala hobetzera edo basoko produktuen balioa handitzera zuzendutako inbertsioak bultzatzea.

**23.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak**

Diruz laguntzeko modukoak izango dira:

Baso kudeaketa iraunkorreko plan teknikoak prestatzeko eta abiarazteko lanak, kudeaketa pribatuko mendietan.

Biomasa biltzea erabilera energetikorako, ongarritzea, tratamendu fitosanitarioak.

**23.2 Laguntzaren zenbatekoa**

Laguntzaren zenbatekoa izango da II. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei ehuneko 40ko portzentajea aplikatzearen ondoriozkoa.

**23.3 Dokumentazio zehatza**

Laguntza eskaerari erantsi beharko zaio sortutako ingurumen zerbitzuen berri ematen duen memoria, nahiz eta inolako ordainketarik ekarri ez.

Ongarritzeko eragiketari txosten teknikoa erantsi beharko zaio, lurzoruaren azterketa bat eginda, erabili beharreko ongarraren eta haren dosiaren gomendioa ezarriko duena. Laguntza ordaindu aurretik beharrezkoa izango da ongarraren erosketa faktura aurkeztea edo ongarritze lanak egin dituen enpresaren faktura; bertan erabilitako produktuaren osaera zehaztuko da.

Tratamendu fitosanitarioei dagokienez, erosketa faktura aurkeztu beharko da edo tratamendua egin duen enpresaren faktura; bertan erabilitako produktua zehaztuko da.

**23.4 Lehentasun irizpideak**

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Administrazioak onartu eta baso kudeaketa iraunkorreko egiaztapen sistema bati atxikitako antolamendu proiektua edo baso kudeaketa iraunkorreko plana (BKIP) duten mendietako jarduketak: 20 puntu.

3. Mendi pribatuetako jarduketak:

gazteek sustatutako proiektuak (41 urtetik beherakoak): 5 puntu.

emakumezkoek sustatutako proiektuak edota emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituztenak: 5 puntu.

4. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundera duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

**24. artikulua. Neurria: M04.3 Basogintza sektorea garatzeko, modernizatzeko edo egokitzeko azpiegituretako inbertsioak**

Laguntzaren xedea da azpiegituren eraikuntza sustatzea, baso azaletarako irisgarritasuna hobetzen laguntzeko, bai eta baso sektoreko kudeaketa premietara egokitzeko ere.

#### 24.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak.

Diruz lagun daitezkeen inbertsio eta gastuak honakoak dira:

Baso pisten eraikuntza eta hobekuntza.

Mendi publikoetako azpiegiturak: larreen hobekuntza, baso eta larretako itxiturak, pasabide kanadarrak, askak.

Mendiko larreak kudeatzeko planak prestatzea.

#### 24.2 Laguntzaren zenbatekoa

Laguntzaren zenbatekoa izango da II. eranskinean ezarritako gehieneko inbertsioen edo moduluen kopuruei jarrian azaltzen diren portzentajeak aplikatzearen ondoriozkoa:

24.2.1 Baso pistak eraikitze eta hobetzeko lanei dagokienez, azaleraren arabera izango da:

Baso azalerarako < 20 ha: ehuneko 30.

Baso azalerarako > 20 <50 ha: ehuneko 45.

Baso azalerarako > 50 <1000 ha: ehuneko 60.

Baso azalerarako > 100 <200 ha: ehuneko 70.

Baso azalerarako > 200 ha: ehuneko 80.

24.2.2 Mendi publikoetako azpiegiturei dagokienez, portzentajea ehuneko 90erainokoa izango da.

24.2.3 Aparteko edo muturreko natura gertakariak kaltetutako azpiegiturak konpontzeko berebiziko interesa duten kasuei dagokienez, ehuneko 10eko osagarri estra bat izango dute.

24.2.4 Larre publikoak kudeatzeko plan teknikoak prestatzeko lanei dagokienez, portzentajea ehuneko 40koa izango da.

#### 24.3 Dokumentazio zehatza

Baso pistetarako laguntza eskaerekin batera teknikari eskudunak prestatutako proiektu edo proposamen teknikoak aurkeztuko da. Proiektu edo proposamen horrek honakoak jasoko ditu: inbertsio premia justifikatzen duen memoria, kokapen eta xehetasun planoa, zerbitzua ematen zaion azalera, aldapa ertain eta gorenak, ekintzen deskripzio zehatza, aurreikusitako helburuak eta onurak, buruzapenaren programazioa, aurrekontu unitario eta orokorra eta ingurumen eraginari buruzko azterlana manuzkoa den mailan. Halaber, zirkunstantziak justifikatu beharko dira aparteko eta muturreko natura gertakariak kaltetutako azpiegiturei dagokienez.

Pista berrien trazaketari dagokionez, batez besteko aldapa ehuneko 12tik beherakoa izango da eta edozein tartetan orotara izan ahalko duen aldapa ehuneko 16koa izango da gehienez. Salbuespen gisa, aldapa handiagoa onar liteke, memorian justifikatzen diren eta Mendi Zerbitzuak onartzen dituen kasuetan.

Larreak ixteko eta bestelako azpiegiturak egiteko eskaerekin batera honakoak aurkeztuko dira: kokapen edo xehetasun planoa (bertan obraren ezaugarriak zehaztuz) eta zerbitzua ematen zaion azalera.

#### 24.4 Lehentasun irizpideak

Laguntzak emateko, honako lehentasun irizpideak ezartzen dira:

24.4.1 Lehentasunezkoak izango dira aparteko eta muturreko natura gertakariak kaltetutako azpiegiturak konpontzeko espedienteak.

24.4.2 Larre publiko eta komunalei lotutako azpiegituretarako proiektuei dagokienez, lehen-tasan hurrenkera ezarriko da ukitutako larreen hektarea kopururik handienaren arabera.

24.4.3 Baso pistei dagokienez, lehen-tasan hurrenkera ezarriko da ukitutako baso hektarea kopururik handienaren arabera.

Balorazioan berdinketarik sortuz gero, funts txikiagoko sustatzaileek bultzatutako proiektuek lehen-tasuna izango dute funts handiagoko sustatzaileek bultzatutako aldean, betiere honako hurrenkera honi jarraituz: nekazari-basotzailea, nekazari-basotzaileen elkarteak, mankomunitateak edo administrazio batzarrak, udalak.

### III. TITULUA

Arabako Foru Aldundiaren aurrekontuen kontura oso-osorik finantzatutako laguntzak

#### **25. artikulua. Neurria: Basoen kontserbazioa**

Neurri hau garatzen da indarreko arautegitik haragoko baso eta ingurumen konpromiso gehigarriak borondatez hartzen dituzten eta basoetan edo balio handiko basoetan edo sistemetan kontserbazio jarduketak egiten dituzten baso titular publikoei zuzendutako laguntzak definitzeko.

25.1 Diruz laguntzeko moduko jarduketak.

Diruz laguntzeko modukoak izango dira:

Basoak edo baso balio handiko sistemak kudeatzeko eta antolatzeko planetan ezarritako kontserbazio jarduketak.

Baso sistemak mantentzeko lanak, hartutako konpromisoei lotutako kontserbazio jarduketan bitartez.

25.2 Berariazko betekizunak

Erakunde onuradunek gutxienez 7 urteko epean bete beharko dituzte honako betekizun hauek:

a) Onartutako baso kudeaketa iraunkorreko plana edo antolamendu proiektua izatea.

Gunea Natura 2000 Sarearen barneko eremu batekin osorik edo partzialki bat badator, ekintzak bateragarriak izango dira Natura 2000 Sarea kudeatzeko kontserbazio helburuekin.

b) Baso kudeaketa iraunkorrari dagokionez, honako jarduketetariko batzuk aplikatzea:

Azken mozketen txanda aldi batez luzatzea edo atzeratzea, interesa duten habitatak edo fauna edota flora espezieak babesteko.

Baso lurrak babesteko neurriak, horretarako inpaktu txikiko metodoak erabiliz baso aprobetxamenduak izan bitartean.

Mozketaren inpaktua txikitzea, kablea edo animalien trakzioa erabiliz egurra ateratzeko pista berriak egin beharreen.

Basoak eta habitat bereziak babesteko edota ekosistema espezie babestuen baldintzetara egokitzeko xede duten bestelako jarduketak.

c) Baso kudeaketa iraunkorreko honako jarduketa hauek nahitaez betetzea:

Identifikatutako paisaiaren edo natura edo kultura ondarearen elementu interesgarriak zehaztea eta babestea: habitat bereziak, ibarrak, ekotonoak, espezie mehatxatuak, etab.

Mozketak egiten direnean, honakoak zutik uztea, halakorik egonez gero: basotxoak eratzen dituzten natura espezieak, horien barnean oin zaharrak, hilak, lehorrak edo lurrera botatakoak sartuz. Zeregin hori arrisku fitosanitarioen edo sute arriskuen muga egokien barruan bete beharko da.

Prebentzio neurri egokiak hartzea baso lanak egiten direnean, ibarren eta hezeguneeen gaineko kalteak minimizatzeko, zubi eramangarriak edo inpaktu txikiko bestelako metodoak erabiliz, beharrezkoa izanez gero.

Indarreko arautegian nahitaezkozkat hartutakoez gain, basogintza eta ingurumenaren aldetik bestelako konpromiso osagarriak hartzea eta horien bidez kontserbazio jarduketak aurrera eramatea.

### 25.3 Laguntzaren zenbatekoa

Kudeaketa eta antolamendu planek basoetan edo baso balio handiko sistemetan ezarritako kontserbazio jarduketak gastuen zenbatekoaren ehuneko 100arekin lagunduko dira diruz.

Hartutako konpromisoei lotutako kontserbazio jarduketan bidez baso sistemak mantentzeko lanak honela lagunduko dira diruz: urtean 90 euroko gehieneko primarekin hektareako; hori guztia Mendi Zerbitzuaren txosten batek baloratuko du.

### 25.4 Lehenetsun irizpideak

Laguntzak emateko, puntuazio sistema bati jarraituko zaio, honako irizpide hauetan oinarri hartuz:

1. Natura 2000 Sarean sartutako mendietako jarduketak: 25 puntu.

2. Mendi publikoetako jarduketak:

ziklo ertain edo luzeko hazkundea duten espezieei bideratutako proiektuak: 5 puntu.

emakumezkoen kontratazio berriak sustatzen dituzten proiektuak: 5 puntu.

Puntuetan berdinketarik egonez gero, inbertsio bolumenik txikiena duten jarduketak lehenetsiko dira.

**I. ERANSKINA**

## Espezie taldeak

ESPEZIE TALDEAK	ESPEZIEAK
Ziklo laburra	<i>P. radiata, P. taeda, Populus spp., P. pinaster, Alnus glutinosa cantábrico</i>
Ziklo ertaina	<i>Pseudotsuga menziesii, Larix spp., Chamaecyparis lawsoniana, Cryptomeria japonica, Picea spp., Cedrus spp., P. nigra, P. sylvestris, Sequoia spp., Quercus rubra, Liriodendron tulipifera.</i>
Hostozabal autoktonoen ziklo ertaina	<i>Betula spp., Prunus avium, Fraxinus excelsior cantábrico, Acer pseudoplatanus.</i>
Ziklo luzea	<i>Castanea spp., Juglans spp., Q. robur, Q. petraea, Q. ilex, Q. suber, Fagus sylvatica, Tilia platyphyllos, Alnus glutinosa mediterráneo, Fraxinus excelsior mediterráneo, P. pinaster mediterráneo</i>

Zerredan agertzen ez diren espezieak Mendi Zerbitzuak sailkatuko ditu haien ezaugarriak kontuan hartuz.

**II. ERANSKINA**

## Moduluak

BASOTZEA		
ESPEZIE TALDEAK	ALDEZ AURREKO PRESTAKETA	MODULUA (EURO/HA)
Ziklo laburra	Prestaketarik gabe	1.450
	Eskuz	2.500
	Mekanizatua	2.100
	Marrak	205
Ziklo ertaina	Prestaketarik gabe	1.750
	Eskuz	2.750
	Mekanizatua	2.350
	Marrak	245
Hostozabal autoktonoen ziklo ertaina	Prestaketarik gabe	1.800
	Eskuz	3.000
	Mekanizatua	2.600
	Marrak	245
Ziklo luzea	Prestaketarik gabe	2.000
	Eskuz	3.100
	Mekanizatua	2.650
	Marrak	260

Basotze moduluaren barruan lurra prestatzeko lana, zulaketa, landarea eta landaketa sartzen dira.



JARDUKETA	DESKRIPZIOA	MODULUA
Sastrakak kentzea		480 euro/ha
Itxitura	Itxitura sare zinegetikoarekin + hari arantzadun 1 edo 5 hari	5,2 euro/ml
	Alanbre arantzaduneko ilarak dituen itxitura; 4 ilara gutxienez	4,4 euro/ml
	Itxitura altua sare zinegetikoarekin, 1,5 m + alanbre arantzaduneko 2 hari	7,5 euro/ml
	Itxiturak kentzea	1,85 euro/ml
Babesak	1,80m + taketa	3,9 euro/unit.
	1,50m + taketa	3,35 euro/unit.
	1,20m + taketa	2,3 euro/unit.
Mikorrizazioa		160 euro/ha
Mehazketa hondakinak kendu gabe		280 euro/ha
Hostozabalak sortzeko mozketak, hondakinak kendu gabe		260 euro/ha
Bakanketa	Bakanketa ez-emankorra, hondakinak kendu gabe	530 euro/ha
	Hostozabalen bakanketa ez-emankorra, hondakinak kendu gabe	555 euro/ha
Inausketa	Koniferoen inausketa baxua	505 euro/ha
	Koniferoen inausketa altua	635 euro/ha
	Hostozabalen inausketa baxua	370 euro/ha
	Hostozabalen inausketa altua	610 euro/ha
Kimuak aukeratzea hostozabaletan		505 euro/ha
Larreak bihurtzea, hala nola hesiak edo suebakiak		920 euro/ha
Hobetze mozketak hondakinak kendu gabe		610 euro/ha
Hondamendien prebenitzeko jarduketak	Inausketa, bakanketa edo hobetze mozketako hondarrak eskuz kentzea	250 euro/ha
	Inausketa, bakanketa edo hobetze mozketako hondarrak xehatu edo txikitzea	500 euro/ha
Izurriteak eta gaixotasunak prebenitzeko jarduketak	Tratamendu fitosanitarioa luraren gainean	135 euro/ha
	Tratamendua, aire baliabideak erabiliz	55 euro/ha
Jarduketak hondamendien ondoren	Ukitutako materialak garbitzea, ebakitzea, txikitzea, kentzea edo ezabatzea	1.450 euro/ha
Ongarritzea		160 euro/ha
Tratamendu fitosanitarioa		135 euro/ha